

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1988ko Abenduaren 2a, 1. zenbakia.

MONDRAGOEKO KONTSUMO- BULEGOA INDARREAN

ARRASATEKO OMIC (Kontsumitzaileen Informaziorako Udal-Bulegoa) orain bost urte jaio zen Arrasaten. Helburu hirukoitza du: kontsumo esparruko salaketak bideratzea; informazioa zabaltzea eta kontsumitzaileen heziketa. Oraingo honetan arrakastatsu suertatzen ari den informazio-kanpaina bati ekin dio (8. orr.).



La Otxoa: "uste gabeen hasi nintzen transformismoa egiten". La Otxoa Arrasatetik pasa zen. Hau ez zen bilbotar honen lehen bisita eta azkena ez izatea espero dugu. Bi ekitaldien artean harrapatu genuen bere kamarenioan eta, lasai asko, solasaldiari ekin genion (15. orr.).

Aktualitatea:

— Amaya zineantzokia, beharbada, laster Udalaren eskuetara pasatuko da (13. orr.).

— Udazkena: ekitaldi kulturalaz jositako sasoia. Oraindik harrিতa gaude, baina azken aste hauetan Arrasaten mota ezberdinetako ekintza kultural ugari ari da plazaratzen (12. orr.).

— Musika-Kontserbatorio bat zabaltzeko asmoa dago Arrasaten (13. orr.).

Asteko taupadak, inkesta fotografikoa, artea, Udalaren txokoa, musika, kirolak, eta beste barruko orrietan.


KAIXO ARRASATE

Astekari berri bat jaio da herri mailako prentsaren mundura, ARRASATE PRESS, euskara hutsean, zuri hobeto informatzeko asmo sendoarekin.

AED-ren eskutik plazaratzen gara, Mondragoeko udalaren laguntza ezin hobeari esker. Gure herriari merezi duen komunikabidea eskaini nahi diogu. Astekari irekia eta bateratzailea izatea nahi dugu. Horretarako euskara aukeratu dugu, geure herriaren elementurik integratzaileena izan daitekeelako. Arrasateko dendari, saltzaile eta anuntziatzaileek horrela ulertu dute, eta publizitate ugari eskaini digute.

Horrekin batera ARRASATE PRESS irrakurterraza, atsegina eta praktikoa egin gura dugu. Egitasmo honen inguruan sortu dugun taldea gaztea da eta ilusioz betea.

Gogoan izan, astero, astero zure etxeko buzoian ARRASATE PRESS aurkituko duzu, dohainik, merezi duzulako. Berrondeizula!



Arrasate

Kirolak

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tnoa: 794612

asteko agenda

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:	
Arasateko Eskualde-Ospilatea..	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011
Famili medikuntzarako zentrua ..	790500
Gurutze gorria:	
Bergara	765576
DYA	
Antzuola	766291
Anbulatorioak	
Arrasate	795200
.....	791357
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945)455116
Anbulantziak:	
Gipuzkoako ambulantiak	458744
Udaltzaingoa:	
Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322
Ertzantza:	
Arrasate	797199
Bergara	
Suhiltzaileak:	
Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
buruaren helbidea	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800
Matxurak:	
Urak(udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (iberduero)	790581
Garraioak:	
Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419
Hirugarren adinerantzako zetruek:	
Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157
Kontsumitzailearentzako informazioa:	
Deba Garaiko kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	798777

OSTIRALA, ABENDUAK 1

— Zinea: Alai "Frenetiko"

Novedades (Bergara): "Rattle and Hum" (U2)

— Guardiako farmaziak: J.M. Morales; Araba, Ibilbidea 17 (San Andres)

— Gaurtik aurrera Oñatin zine aretoa jarriko da martxan. Zinema, Bergarako Nobedades zinemakoen gain egongo da urtebetez eta ostiral, larunbat eta igandetan izango ditu funtzioak.

LARUNBATA, ABENDUAK 3

— Zinea: Alai "Cuatro cachorros para salvar" 5etan

Novedades (Bergara) "Rattle and Hum" (U2) 5,7.30 eta 10.30etan

— Goardiako farmazia: Ruiz Torre, Ferrerías 1

— AGUR EIREAGUR, Amaia antzokian, gaueko 10.30etan

Tantitaka-Topok, Pere Planella zuzendari katalanaren gidaritzapean, Brian Friel irlandarraren AGUR EIRE AGUR obra eskainiko digu.

Tantitakoa-Toporen ustez, antzerki lan honek Ulsterreko egoera isladatzen digu, baina Euskal Herriko errealitate historiko eta egungoarekin antzekotasun nabaria duelarik. Obrak komedia eta dramaren ezaugarriak ditu.

— Gaurtik hasita, asteburu luze honetan zehar, Arrasaten, Gipuzkoako IX. Eskusoinu Txapelketa eta Gipuzkoako I. Eskusoinu Festibala izango dira.

Gaur, txapelketaren barruan, 9.30etatik 12etara Institutuko areto nagusian, haur kategoriako kanporaketa-fasea burutuko da eta 15etatik 19,15etara erdi mailakoena.

Bestalde, Eskusoinu jaialdiaren barruan:

— 8,45etan: Bikoteak 3, derrigorrezko emanaldia.

— 9,00etan: Bikoteak 2, derrigorrezko emanaldia.

— 9,20tan: Bikoteak 1, derrigorrezko emanaldia.

— 10,00etatik 12,30etara: C maila. bete beharreko emanaldia eta borondatezkoa.

— 15,00etatik 16,30etara: A maila. Derrigorrezko emanaldia eta borondatezkoa.

— 17,00etatik 20,30etara: B maila. Derrigorrezko emanaldia eta borondatezkoa.

— Durangoko azokara autobusak

AED elkarteak, Durangon izango den Euskal Liburu eta Disken azokara joateko autobusak antolatuko ditu.

Ordua: Arratsaldeko 3.45

Lekua: Garibaiko geltokian

IGANDEA, ABENDUAK 4

— Zinea: Alai "Frenetiko"

Novedades (Bergara): "Jungla de Cristal"

— Guardiako farmazia: Español, Iturriotz 17.

— IX. Gipuzkoako Eskusoinu txapelketa.

Institutuan 10.00etan Goi Mailako Kanporaketak.

— I. Gipuzkoako Eskusoinu Festibala.

Institutuan 10etatik 11.30etara. D Maila. Derrigorrezko emanaldia eta borondatezkoa.

Amaia antzokian: Amaierako jaialdia: Bikoteak 1, 2 eta 3k borondatezko lanak eskainiko dituzte, eta sari banaketa izango da.

ASTEARTEA ABENDUAK 6

— Zinea: Alai "Cuatro cachorros para salvar" 5etan.

Novedades (Bergara): "Soldadito Español" 5, 7.30, 10.15etan

— Goardiako Farmazia: Irizar, Erguin.

— Gipuzkoako Eskusoinu Txapelketa:

Amaia antzokian: Amaiera jaialdia 11.30etan: lehen hiru sailkatuen jarduna

kategoria guztitarako sari banaketa

Txapelketaren amaiera.

ASTELEHENA, ABENDUAK 5

Zinea: Alai "Cuatro cachorros para salvar" 5etan

Novedades (Bergara): "Jungla de Cristal", 5, 7.30 eta 10.30etan

Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

Gipuzkoako Eskusoinu Txapelketa: Institutuan: 8.45 Goi Maila. Finala. 11,45 Haurren maila.

16.30 Erdi Maila. Finala

ASTEAZKENA ABENDUAK 7

Zinea: Alai: Ez dago sesiorik

Goardiako Farmaziak: Amezua, Santa Marina.

OSTEGUNA, ABENDUAK 8

— Alai zinema: "Visiones"

— Goardiako farmazia: Ruiz, Magdalena.

— "Negoziazioaz mintegia", AEDko lokaletan arratsaldeko 7etan

— Euskalkiei buruzko ikastaroa Txillardegiren eskutik, Arratsaldeko 7etan Monterronen

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzandaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Begofia Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Jose Luis Agote

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix D. Tuesta
Harry Zaraia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Jose Mari Velez
de Mendizabal

Mikel Irizar
Karmele Zuazubizkar
Jerardo Elortza
Juan Martin Elexpuru
Mikel Arregi
Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea


Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. TF. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Lege-Gordailua:

ISSN:

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzienerantzunkizunik.



Aukera eman didate gure herrian argitaratzera doazen aldizkari (astekaria, omen) batetan noizbehinka idazteko. Eskertzen dut eskaintza eta ahal-eginduko naizela agintzen diet nigana hurbildutako lagunei. Hamalau urte dira euskaraz izkiriartzen hasi nintzela eta, hain zuzen ere, nire lehen saioak Arrasaten gaineko albisteak ezagutarazten egin nituen. Garaiko "Zeruko Argia"n ia astero zutabetxoren bat betetzen nuen eta orduko gure gizarte izoztuan —euskal gizarteari nago-kio, noski— harribitxi bailiren gertaturiko albisteak azaltzen nituen. Zaila, oso zaila zitzaidan asteroko betekizun hari itxura ematea; hain gutxi ziren jazoerak!

Harrez geroztik zaharragotu egin gara. Eta ezin uka gure artean aldaketa nabaritzen denik. Denetarikoak bizi behar izan ditugu urte haietatik eta bienbitartean belaunaldi berri batek gure gizarte-txaluparen lema eskuratu du, ontzia helburu amesgarri bezain zailtasunez betea den kairaino eramateko asmoz. Astindu ederra jasan du ohizko ingurugiroak, etorkizunekoak zer ekarriko

digun zai geratzen garelarik. Hasteko, edozein belaunaldi berrik jokoan ipini behar dituen kutsu utopikoak azaltzen direla... Arrasaten astekari bat, euskara hutsez eta estilo biziz. Harrapazak!

Zeinek esango zukeen nire hastapenetako ur jario mehe hura ibai heldua bihurtuko zela? Eta irakurlego urri bezain militantea herri osora hedatuko zela? Egia esan, gauzak aldatu-xeak daude. Eta gure Arrasatek, hainbat eta hainbat gauzatarako apartekotasuna erakutsi duen herri honek, euskal prentsa idatziari eskaini nahi dio lekutxo bat; zartako galanta batzuentzat... aukera paregabea gehienontzat. Hori bai, zartako are mingarriagoa eta lotsagarriagoa izango litzateke guretzat, euskaldunontzat, etxeraino iristen zaigun posibilitateari uko egingo bagenio.

Baikorra izan nahi dut. Eta dagoeneko gure eskuetan daukagun astekariaren arduradunei "Arrasate Prest" dutela esan behar zaiela deritzat. Denon artean, euskarak garaitarte!

Velez de Mendizabal



CHASYR 1879 ASEGURROAK

GASTEIZ


M. Iradier 15. 233003
Ordezkaritza

ARRASATE

E. Gerrikabeitia. 797435
Andoni Conde. 796008

EIBAR


I. Gerrikabeitia. 712139
Isasi 17, 1., esk.



ARRATE IRRATIA, S. A.
FM - 101,5

Goizeko 9etatik
Gaueko 11ak arte
Irraysaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA



Zeu ezertara behartu gabe, aseguru-
mota guztien informazioa emango dizu-
gu, zutre beharretarako egokiena zein
den adieraziz.

- * Etxeko arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotara-
koa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi Mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ...etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa...796900

ARRASATE

GUREA ALA AMAIA

Azken egunetako egunkarier-
tan irakurri ahal izan dugunez, ba-
liteke udala AMAIA antzokiaren
jabe egitea, honen ordez bere
ugazabari GUREA zinema zena-
ren orubea eskainiz, bertan etxe-
bizitzak egin ahal izateko. Udda-
la, beraz, AMAIA ala GUREA,
bietako batekin konformatuko
dela argi dago.

Eta horrek benetan arritu egi-
ten gaitu. Ez al zen ba orain gutxi
ospatutako pleno batetan esaten
Arrasate defizitarioa dela zirbitzu
mailan? Kultur zerbitzuetan ez al
da defizitarioa? Kultur-bizitza in-
dardu nahi bada ezinbestekoa
izango da horretarako beharrezko
den azpiegitura izatea, ala ez?
Non kokatuko dira hainbat eta
hinbat kultur zerbitzu? Gure uste-
tan, argi eta garbi, AMAIA bai
baina, GUREA era bai, hau zertan
erabili seguru ez dela faltako eta.

Jone. E

ERREKAREN USAINAK

Zuzendari jauna:

Badakit azken hilabete hone-
tan oso euri gutxi egin dauela, eta
horrek zerikusi handia izango
dauela baina S.Juan auzoan erre-
katik urteten dan usaina edozein
ikaratzeko modukoa dala uste dot.
Izan be, Zarugalden hasi eta harai-
no erreka estalita dago. Inoiz inor
sartu da hor barruan dagoena ikus-
tera?

Jon. L
(Arrasate)

Agur zuzendari jauna:

Lehenengo eta behin, ZORI-
ONAK eman nahi nizkioke aste-
kari hau kaleratzea posible egiten
duten pertsona guztiei, berari es-
ker plazaratu ahal izango bait di-
tut, aspaldi honetan azaldu nahi
nuen galdera batzu Izan ere, beste
komunikabide batzu badaude ere,
ez dira tresna egokiak arrasatear-
rok dauzkagun kezka etaproble-
mak azaltzeko, beren zabaltze ere-
mua oso handia izanik, Arrasa-
teko gaiek garrantzia galtzen dute
eta. Hortaz, bada, ZORIONAK
arrasatear guztioi ematen digu-
zuen aukeragatik.

Esaten nuen bezala, aspaldi
honetan kezkatuta nago Arra-
saten ETB ondo ikusten ez delako.
Hasieran gure etxean bakarrik
gertatzen zela uste nuen, baina
lagunei eta senideei galdeturik,
euren etxeetan ere ez da ondo
ikusten batez ere eguraldi txarra
egiten duen egunetan edo euri
jasaren bat dagoenetan.

TVE, ordea, askoz ere urru-
tiagotik emititu arren, oso ondo
ikusten da.

Nik jakin nahi nuke norena den
ETBk Murun duen antenaren ar-
dura, zeren bailarako Udalena
bada, konpondu beharko luketela
uste dut; eta ETBrena bada, baila-
rako Udalek ETBri eskatu be-
harko liokete antena behar den
moduan jartzeko. Hauxe da nire
kezka eta gustatuko litzaidake
baten batek ardura hori bere gain
hartzea, arrasatearrok ETB ondo
ikusi ahal dezagun.

Eskerrik asko, berriro ere eta
hurrengo bat arte.

LAURA.

Epaitegia Pablo Urangara

Aste honetan gobernu batzordeak egin duen bilkuran epaitegia lekuz aldatzeko bete behar diren pausoak azkartu ditzan eskatu dio Justizi Ministeritzari. Gaur egun epaitegia Erguin kalean kokaturik dago, herritar ugari kexu delarik igo behar diren eskailera ugariengatik. Epaitegi berria Justizi Ministeritzak Pablo Uranga kalean erosi dituen lokal batzuetan kokatuko litzateke.

Industrialde berria Zigarrolan

Zigarrolako irteeran industrialde berria kokatzeko baimena emanik dago. Industrialde berri honen erai-kuntza Brues enpresaren esku egongo litzateke baina oraindik arazo ugari konpontzeke dago adibidez, ibaia lekuz aldatu beharko

litzateke; baina arazo hauei Abenduaren 2ko Plenoak eman beharko die irtenbidea.


BBV Olarte kalera

Aste honetan zehar jakin ahal izan dugu BBVk Olarte kalean irekiko dituela bere bulegoak, ondorioz BVk Biterin dituen bulegoak itxi egingo dituelarik. Bulego haue-tan Banko Centralak du bulegoak jartzeko asmoa.

Arizmendiarietaren XII. urteurrena

Gizabide fundazioak, Jose M. Arizmendiarietaren XII. urteurrena ospatzeko ekintza ugari antolatu zituen; ekintza hauen barruan Setien Gipuzkoako gotzaiak hitzaldi bat eman zuen "On Jose Mariaren ondarea jasoz" izenburupean. Aipatu behar da, "Jose Maria Arizmendiarieta" literatur lehiaketako sariak banatu zi-

rela. Lehiaketa hau hiru mailatan banaturik zegoen, A maila BUPEko eta LHko 1. eta 2. mailentzat, B maila BBBeko 3. eta UBIn dabil-tzan ikasleentzat eta bestea unibertsitatean dabil-tzarentzat.



Jose Maria Arizmendiarieta

**LASAGABASTER
JANTZIDENDA**

bere hornigai haundian beti
modako gauzarik onenak
aukeran izango dituzu.

Zuhaitzen inausketa

Dagoeneko zuetariko batzuk konturatuko zineten, azken egunotan Arrasaten mantenimenduaz arduraztzen diren pertsonak gure herrian dauden zuhaitzak inauten ari direla, urtero udazken aldera ematen den inausketa kanpainaren barruan. Esan behar da azken urteotan gure herrian berdeguneak gehitu egin direla, gaur egun 1960 zuhaitz edukitzera heldu garelarik.

Pobreentzako janaria

Arrasateko Udalak gizarzte-laguntzaileen bidez, gure herriko pobreen artean janaria banatu du. Janari hau, Europako Ekonomi Elkartek izan dituen soberakinen banaketatik dator. Soberakin hauek EEE osatzen duten Estatuaren artean banatzen dira pobreei laguntza gisa emateko. Orotara, Arrasaten 1500kg janari banatu dira 40 familiaren artean. Banaketa hau Karitasen laguntzarekin egin da.

ZORIONAK

Sebas Gorosabel rugby jokalaria, Estatuko selekzioan jokatzeko deitu diotelako. Hau ez da lehenengo aldia selekzioan jokatzeko deitzen diotena eta Euskadiko selekzioan ere parte hartu izan duela esan behar da. Arrakasta izan dezala opa diogu.

Gerediaga Elkarteari, aurten ere Durangoko euskal liburu eta disken azokaren ekitaldi berri bat antolatu du eta. Aurten goan Abenduak 2tik 5era bitartean izango da, 123 stand jarriko direlarik. Beraz, euskaraz argitaratu diren azken liburuak ikusteko aukera ezin hobea dugu Abenduaren lehen asteburu honetan. Azokaren inguruan ekitaldi ugari antolatu da, hauen artean lehen egunean "Julene Azpeitia" ipun lehiaketaren sari banaketa egingo delarik.

Iñaki Perurena eta **Arantxa Arbeolari**, urteko nafar kirolaririk onenen izendapenak jaso bait dituzte. Denok dakigun bezala, Perurenak aurtengoan ere errekor berri bat jarri du 306 kilotako harria jasotzean. Datorren urterako ere, aurtengo martxa onarekin segitzea opa diegu bie.

Galder Kristobal arrasatearrari, Donostiako kontserbategiak Zezilia Deunaren eguna ospatzeko antolatu zituen ekin-tzetan parte hartu zuelako. Donostiako Udaletxean eskaini zuen kontzertua flauta-jole gazte honek. Zorte ona opa diogu etorkizunerako.


J.Markiegi.

Gizonezko jantxidenda.

Olarte kalea,4. Tfn:791532.

ARRASATE.

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa 797263 - ARRASATE



Asteko galdera: zer deritzozu Gazteluondoko Arrabala botatzeko dagoen proiektuari? zergatik?



– Joseba Isazelaia. 20 urte.
Langilea:

Ze proiektu? Ez dakit... Txarto. Alde zahar osoa pikutara botatzen ari dira.



– Felix Arriaran. 31 urte.
Dendaria:

Txarto. Ondo dago dagoen moduan. Arrasateko auzorik jatorrena da eta, gainera, kontutan hartu behar da hor ikastola dagoela. Karreterek ez dute ezertarako balio.



– F. Javier Galino. 41 urte.
Enplegatua:

Ez dakit zein helbuerekin egingo duten. Denon onurarako eta hobetzeko bada, ados nago.



– Rosario Goñi. **Jubilatua:**

Ez dut ulertzen nondik nora doan proiektua, baina kendu zuten arkua berriz jarri beharko lukete. Torretak bota egin beharko lituzkete, herria zatarrago bihurtzen dute eta. Eta ez dago deretxorik Gerra-rena bezalako etxe bat botatzeko.




SOKOA

iturriotz kalea, 12.

tfnoa: 79 96 25

arrasate



erdiko kale 22, tf. 79 32 27

IRATI

HERRIKO TABERNA

Ferrerias kalea.

Arrasate



HILBEHERA KAFETEGIA

Uribarri etorbidea

ARRASATE

ARRASATE PRESS

Zure publizitatea egiteko lekuri-
egoki eta merkeena herrian bertan

OMICek informazio kanpaina bati ekin dio

“Oficina Municipal de Información al Consumidor” deitutako hau orain bost urte jaio zen arren (1983ko Azaroan zabaldu zen), batzuk kanpaina honi esker jabetu dira beronen existentziaz.

Informazio kanpaina hau fitxa-karpeten bidez ari da burutzen. 8.000 karpeta banatu dira arrasatearren artean. Karpeten inprimaketa Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzaren lana izan da, hauek betetzeaz herri ba-koitzeko Kontsumo Bulegoa ar-

rosketa-tratuekin erlazionaturiko aholkuak, bidai agentziak eta kontsumitzaileen eskubideak, energia aurreratzeko trukoak, etab.

Arrasateko OMICen arduraduna den Antton Fernandezek esanez, oso arrakastatsua ari da suertatzen kanpaina.


Bulego honek honako helburu hauek ditu: a) Kontsumo esparruko salaketa eta erreklamazioak bideratzea; b) Kontsumo arloko informazioa zabaltzea eta, c)

ekintzei ekin dien urte honetako Urtarriletik Urriraino OMICek: a) Kontsulta eta informazioak: 94 ekintza (guztien %55a). Sail honetan, etxebizitzari buruzkoak izan dira ugariak; b) Salaketa eta erreklamazioak: 65 (%38a). Sail honi dagokionez, bi gai izan dira gehien kezkatu dituztenak kontsumitzaileak: merkatu disziplina (hau da, pisu edo produktuen kalitatearekin saltzaileek egindako “pufiak”) eta zerbitzu pribatuak. c) Kanpaina informatzaileak: 2 (%1a, azkenengo hau ez dugu kontutan hartzen). Bata, industri produktuei buruzkoa, eta bestea monopolioena. d) Ikuskapen edo inspektzioak: 8 (%4a). Gehienak, janari produktu eta merkatu disziplinari buruzkoak.

Guztira, OMICek 169 ekintza burutu ditu azken hamar hilabeteetan, hauetatik 92 (%54a), pertsonalki tratatu direlarik.

Bulegoaren arduradunak, Antton Fernandezek esan zigun legez, OMICen helburua ez da bakarrik arazoak konpontzea, lehen bait lehen konpontzea baizik.

Berari ez dagokionean, konpetentzia falta dela eta, bulegoak arazoa dagokionarengana (Eusko Jaurlaritza zein Kontsumo Zuzendaritzarengana, esaterako) bideratu eta tramitatu egiten du.



Arrasaten Kontsumo Bulegoa orain bost urte zabaldu zen.


duratu delarik. Orain arte bederatzita fitxa inprimatu dira, beste bi laster irtengo direlarik. Fitxa hauek kontsumo arloko zenbait gaiz informatzen dute: beharrezko telefono-numeroak, sale-

kontsumitzaileen heziketa.

169 ekintza hamar hilabeteetan

Helburu hauetatik, lehena da gehien landu duena bulegoak. Ikus dezagun orain zein motatako

Anttonek azpimarratu ziguna zera da: Kontsumo Bulegoak sortzen diren arazoetan beti bi aldeen ikuspuntutik aztertu behar du arazoa: kontsumitzaile eta sal-tzailearenetik, alegia.



Antton Fernandez, Arrasateko OMICen arduraduna

rako Zentroan oinarrizko kontsumo-gaiei buruzko ikastaroak antolatzeke asmoa dago: etiketaketa, janari-manipulazioa eta antzerako gaiak izango lirateke aztergai.

OMICen, datu-banku bat beharrezkoa


Bulegoaren premiazko beharren artean, Antton Fernandezek bat azpimarratzen zuen besteen gainera: datu-banku bat beharrezkotzat jotzen zuen, zeren eta ikuskapen edo inspektzioak egiteko zentsu informatizatu bat ezinbestekoa bait da.

Amaitzeko, bulego erabil dezaten kontsumitzaileak animatzea besterik ez da geratzen. Kontsumoarekin erlazioaturiko edozein gai aztertzeko dago, eta ez bakarrik azoka-plazarekin erlazioatuak, bulegoaren kokapena dela eta, jende askok eta askok uste duen bezala. Astelehenetik ostegunera 11etatik 1etara, eta 2,30etatik 5,30etara; eta ostiralean 11etatik 2etara aurkituko duzu zabalik.

Kontsumitzailearen heziketarako medioak falta dira

Anttonek berak aitortu zigunez, kontsumitzailearen heziketa eta formazioa oso gutxi garatutako esparrua dugu: alde batetik, beti aipaturiko medioen faltagatik, eta, bestetik, interes falta nabaria delako.

Arlo hau garatzeko hauexek lirateke bideak: ikastetxeekin koordinatzea (egiten da, baina oso gutxi); kontsumo-tailer pedagogikoak sortzea, etab. Dena den, Helduen Heziketa Iraunkorrera-



OMICen kontsumoari buruzko edozein gai aztertzen da

ONTZI Oparidenda

Zatoz eta aukera ezazu Arrasateko denda berri honetan zure oparia

Kurtzetxiki plaza 2, behea. Tnoa: 79 73 90

udalaren txokoa

KOMUNIKAZIO OFIZIALAK ETA ALKATETZAKOAK

- Alkateak Zarugalde kaleko 21eko eraikuntzako bizilagunei, etxearen egoera dela eta, bertatik ateratzeko esijituko zaiela adierazten du.

HIRIGINTZA, OBRA ETA INGURUGIROKO BATZORDEA:

- Gipuzkoako Foruen plazako hirigintza hobetzeko obrei dagokien abala Construcciones Donosti, S.A.ri itzultzea.
- Santa Teresa kaleko luizia geldiarazteko proiektuaren 1go (azkena) ziurtapena onartzea, 6.022.101 pta.ko aurrekontuaz.
- Udalpe kalean dagoen kurba batetan mugariak jartzea 230.000 pta.ko kostuaz.
- Iturriotz kalean, 23-beheazpian jantzi-denda jartzeko Daniel Lasagabasterrek egindako hirigintza-kontsulta informatzea.
- Olarke kaleko 23an iturgintzako artikuluak saltzeko lokala egokitzeko obra-baimena Juan Jose Ibarluzeari ematea.
- Obenerreka 2an ibilgailuak gordetzeko lokal bat egokitzeko eskatu zuen obra-baimenari buruz, zera jakin eraztea Jose Sande Tomeri: RAMIMP delakoaren arabera espedientea tramitatu behar duela.
- “Erguin aldean (lehen Sektorea) edateko uraren hartune berria” egiteko obren lehen-azken ziurtapena onartzea, 2.891.059 pta.tan.
- S-14 Sektorearen garapenari begira, Udalak eta Construcciones Brues S.L.ren artean egin beharreko hitzarmenari buruzko erizpideak finkatzea.
- S-14 Sektorean lurra mugitzeko baimena ematea Construcciones Brues S.L.ri.

FINANTZA ETA EKONOMI BATZORDEA:

- Gipuzkoako Foru Diputazioari adieraztea Uren Partzuergoa, udal honen iritziz, Deba arro mailakoa izan beharko lukeela.
- Banco Bilbao-Bizkaia, S.A.ri ez ematea Gain-Balioaren zergari buruz eskatutako hobari edo bonifikazioa.
- Hirilurren kontribuzioa nork bere borondatez ordaintzeko epea Abenduaren 31ra arte luzatzea.

KULTURA ETA KIROLETAKO BATZORDEA:

- Amnistiaren Aldeko Gestorek Postalak lortzeko egindako eskaerari ezezkoa ematea.
- Uribe Auzoko Auzo-Elkarteari hainbat ekintzatarako 91.000pta.ko dirulaguntza ematea.
- San Biator Forum-ari 225.000 pta.tako dirulaguntza ematea Erregetarako kabalgata antolatzeko.

SANITATE, KONTSUMO ETA GIZARTE-EKINTZETARAKO BATZORDEA:


- Oñatiko Behar-Zana Ezinduen Elkarteari 10.000 pta.ko dirulaguntza ematea.
- Askapena Elkarteari 75.000 pta.ko dirulaguntza ematea.
- Emakumeen Asanbladak, Abenduan Galizian erasoan aurka egingo diren ihardunaldiak direla eta, egin duen eskaerari uko egitea.
- “Ayúdale a Caminar” klubak egindako eskaerari ezetza ematea.
- Familia eta Gizarte-Heziketarako Zentruari, sexualitate programa bat aurrera eramateko, gehienez 111.000 pta.ko dirulaguntza ematea.

GAZTERIA BATZORDEA:

- San Andres kaleko Gazte Komisioari hainbat ekintzatarako 75.000 pta.ko dirulaguntza ematea.
- Gaztetxearen kokapenari buruzko proposamena astebetetz mahai gainean uztea.
- Musakola Auzoan Gazteentzat lokal bat egokitzen egin den 260.000 pta.ko gastua “Auzoetarako Gazteria Zentruak” partidatik ordaintzea.

BESTE BATZUK:

- Udal bulegoak Udaletxean kokatzeko antolamendu-azterketa, Ergonomia eta Bulego-Eraikinen Antolamenduari adjudikatzea.



Zeure etxerako kalitatea, nahi duzunean,
gogoan izan

GIROA arotzak

Zuk zeure etxean bizi-kalitaterrik onena izateko
saiatzen gara

- * Sukaldeko altzari integralak
- * Armairu landatu edo orman sartzekoak
- * Barne-ateak
- * Ate blindatuak
- * Oholtza edo tarima beteak
- * Parket flotagarriak
- * Itxitura hermetikozko leihoak (irtenberri-berriak!)

LASTER ZABALDUKO DUGU!!!

Iturriotz, 14. ARRASATE

DEBA GARAIKO UDAL ELKARTEA

DEBA GARAIKO LANGABETUEI ZUZENDUTAKO

IRAGARKIA

Estatuko Enplegu Erakundea eta Deba Garaiko Udal Elkarteak.

LANTEGI ESKOLA

Egitarau honek INEM eta Deba Garaiko Udal Elkarteko laguntza du

ESPEZIALITATEAK:

- Zurgintza
- Igeltseritza
- Hargintza
- Instalazioak
- Basogintza eta Birlanaketa

DIRU LAGUNTZAK:

Lehenengo aldian: Eskolaratzeko diru laguntza, (550 pta/
egunero)

Hurrengo aldietan: Aldirako kontratua orduka.

ARGIBIDEAK:

INEMeko bulegoan, Arrasaten

Deba Garaiko Udal Elkartean

IZEN EMATEA:

Abenduko 9 arte, astelehen eta ostiral bitartean, biak barne,
9etatik 15etara. Deba Garaiko Udal Elkartean, Arrasate Pasealekua 5
(S.Viator ondoan) Arrasaten.

Arrasate, 1988ko Azaroaren 24ean

Udalak Amayari buruzko erabakia atzeratu

Amaya eta Gurea zineantzekien arteko trukea ez da, hasiera batean pentsatua zegoen bezala, Abenduak 2ko plenoan erabakiko.

Truke honen ondorioz, Udalak Amaya zineantzokia eskuratuko luke, Gurea Amayaren jabeengana pasatuko litzatekeelarik. Akordioa betez gero, gainera, Gurean egingo litzatekeen eraikuntzako lokal bat Udalarentzat izango litzateke.

Alkateak, Xabier Zubizarretak, erabaki hau atzeratzeko eskatu du, beste irtenbide bat estudiatzen den bitartean. Irtenbide berri hau Udalak Amaya zinea erostea litzateke.

Kultur Batzordea truke honen aldeko ageri zen pasa den astean. Udaleko talde politiko guztiak ere (HB izan ezik, abstenitu egin bait zen), akordioaren alde zeuden.



Amaya zinea agian laster Udalarena izango da

Arrazoi batek bultzatu du, batipat, alkatea erabaki hau atzeratzera: trukea aurrera eramanez gero, Gurea Gaztetxe gisa erabiltzen duten Arrasateko Gazte Asanbladako kideak kalera bota beharrak, hain zuzen ere.

Arrasaten musika kontserbategia eraikitzeke asmoa dago

Arrasate Musikal aspalitik egiten ari den lanari jarraipen bat ziurtatzeko, Udalak gure herrian kontserbategi bat egiteko asmoa du.

Hau litzateke, hain zuzen ere, datorren urteko aurrekontuei begira, desafio handietariko bat.

Dena den, errealismoz ekin beharko zaio egitasmoari, zeren eta, oraingoz behintzat, ez Jaurlaritza ez Diputazioarengandik, subentzio handirik ezingo da jaso.

Aukera bat proiektua eskualde mailan planteatzea da. Horrela, bailara mailan, kostu ekonomikoak banatu egingo lirateke.

Euskadiko beste zentru batzuk ezagutzeko asmoz, Xabier Zubizarreta alkatea eta Bittor Aranzabal eta Xabier Bengoa, Kultura eta Hezkuntza sailletako zinegotziak, Irun eta Leioako kontserbategiak bisitatzea joan dira orain dela gutti.



—besteek esana—

“Durangoko Azokak bere funtzioa betetzen du. Azoka bat bait da. Ganadu azoka bat bezala —gure lagun baten espresioan eta espresioak ez du mingarri izan nahi— edo teknika azoka baten gisara. Eta gure ustetan, horixe eskatu behar zaiio Durangokoari ere, azoka enkontru kultural eta komertzialetarako topaleku izatea”.

(Angel Lertxundi, idazlea Zabalik, DV)

“Mila arrazoi zeudek Euskalerrria Irratia legala izateko. Legez aparte ibiltzeak ekarriko lituzkeen beste hamaika oztopoz gainera, Euskarari beste marjinazio bat ezarriko lioke. Aldiz, guk baimen guztiekin jokatu nahi diagu eta gizartearen erdira joan”.

(Mikel Bujanda, Euskalerrria Irratiko zuzendaria, Nafarroa Gaur)

Ni ez nago Maltzaga-Armiñon autopistaren kontra, baina ezin dut itxoin berori egin arte. Beraz Deba bailarako errepidea hobetu eta zabaltzearen aldekoa naiz

(Eusko Jaurlaritzako Garraio kontseilaria)

Arrasateko Labeko-koba aztarnategiaren baliola pare gabekoa da Arignac-aldia ez delako oso eguzuna Euskal Herrian.

(Aranzadiko Albaro Arrizabalaga)

ARRASATEN AZKEN URTEOTAN, EUSKARAREN EGOERAK HOBEKUNTZARIK IZAN DU?

Bai, azken urteotan baino baliabide gehiagorik euskarak ez du inoiz izan bere normal-kuntzarako: inoiz baino jende gehiago txiki txikitatik euskaraz hezitzen da, hainbat lanpostutarako euskararen ezagatza ezinbesteko baldintza da, eta ARRASATE PRESS astekariaren sorrerak berak ere, urrunago joan gabe, erakusten digu euskara hainbat esparru garrantzitsutara poliki-poliki hedatzen ari dela, baina Arrasateko eguneroko bizitzan, kalean edo lan munduan, esate baterako, euskararen erabilpenak ez du aurrera pausu nabaririk eman, euskararen presentzia oso ahula delarik. Beraz, azken urteotako prozesua ikusirik, itxaropena eta larritasuna nahasten zaizkit.

Egoera honi buelta emateko, nahitaezkoa da euskararen erabilpena leku guztietan indartzea. Honetarako, euskaltzaleok jarrera aktiboa edukitzeaz gain, euskarari zor zaion duintasuna eta garrantzia ematea exijitu behar diegu alderdi politiko ezberdin, komunikabide, enpresa, zerbitzu, elkarte, etabarri.

Arrasaten euskararen egoera hobetzeko derrigorrezkoa da euskaldunak euskara aukera pertsonal eta kolektibo bezala hartzea.

Euskararen erabilpena, herriaren iraupena

Juan Luis Arejolaleiba



BILBAO ASEGUROAK

Enrique Mendieta Ugarte
Agentea

Kontzeziñoa kalea, 6 behea
Tnoa: 798677

ARRASATE


Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturrioz 15

Tnoa: 791516

AKOBEren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNOKETA OSOA - OPARIGAIK

LA OTXOA: TRANSFORMISMOA EGITEN USTEGABEAN HASI NINTZEN

“La Otxoa” Arrasaten zegoela eta, berarekin egoteko aukera pasatzen utzi gabe, Amaia antzokira hurbildu ginen bere saioa ikusi eta bide batez berarekin hitz egiteko. Lehen emanaldia bukatu bezain laster, bere kamerinoan aurkitu genuen: jende gutxi egon zela, baina hurrengoan gehiago egotea espero zuela eta horrelakoekin eman genion hasiera gure elkarrizketari.

- Arrasate Press: Zer dela eta hasi zinen transformismoa egiten?
- “La Otxoa”: Egia esan ni hau egiten ustegabeen hasi nintzen. Espektakulu munduan, nik jadanik ez nuen ezer egiteko, arrakasta izatea bait zen nire helburua eta hori ez nuen lortu. Beraz taberna bat jarri nuen Bilboko Parte Zaharrean eta kopak zerbitzatzear aspertzin nintzenez, han gorderik nuen mikroa hartu eta barra ostetik abestu egiten nuen. Honek jendeari izugarritzko grazia egin zion. Behin, komunikabideek antolatzen zuten festa batean atze-asmoko kuple bat abesteko eskatu zidaten; orduantxe hasi zen nire lanbide hau. Dena dela, behin betiko, Bilboko festa batzuetan hasi nintzen feministentzat Victoria Prego gisa mozorroturik bideo bat egin nuen eta arrakasta izan nuen, jendeak “la Otxoa” Pantera Rosa zela uste zuen, hau da, fikziozko pertsonaia bat. Bilboko areatza lan egiteko eskatu zidaten, hura izugarria izan zen, dena bete-beterik eginda. Handik aurrera hau izan da nire ogibidea.
- Eta “La Otxoa” izena?
- Beno, nire gurasoek taberna bat zuten Otxoa izenekoa eta ni horrela deitzen ninduten. Bestalde “gay” munduan emakume gisa tratatzen dugu elkar, beraz ni artista izan aurretik ere “La Otxoa” nintzen betidanik.

- Hamar urte pasatu dira transformismoa egiten hasi zinenetik baina noiz egin zinen ezagun?
- Hasieran, Sabina, Javier Perez eta beste batzuekin telebista egin nuen, jendea txunditu egiten zen, bazekiten La Otxoa hor zegoela baina besterik ez. Nik uste “Mikelen heriotza” filmearekin egin nintzela ezagun eta geroztik egin dudan guztiarekin.
- Euskaldunok buru-itxiak omen gara, nola hartzen ditugu mota honetako ikuskizunak?
- Euskalduna benetakoa da, integrala. Euskal Herritik kanpo ere aktuatu eta ikuslego zoragarria aurkitu izan dut. Euskadi oso atsegin dut, gainera alde guztietan dago jende kontserbadorea. Euskalduna noblea da, astakeria bat esan arren, transformismoa zergatik egiten dudan jakin ondoren barkamen eske inguratzen zaizu. Jendeak ikuskizuna atsegin du beste era batean adierazi arren.
- Saioa herri batean eman ala hiri batean eman, desberdintasunik somatzen duzu?
- Beno, herrietan jendea beldurturik bezala egoten da. Hirietan probokatu egiten zaituzte. Herrietan zu zara probokatu behar duzuna.
- Zer-nolako jendea etortzen da zu ikustera?
- Nik batetik ehunera hartzen dudala esan ohi dut. Haurrak, zaharrak, gazteak, denak etortzen dira ni ikustera. Rock gogorra atsegin dutenei ere gustatzen natzaiera uste dut.
- Zein harreman duzu feministekin?
- Gogorrek esan nahi duzu, ez? Beno, gauza batzuetan desberdin pentsa genezake; adibidez, nik makilatzea eta horrelakoak ondo ikusten ditut, emakume batek bere burua po-



- lita ikusi nahi badu ez dakit zergatik ez duen makilatu behar eta gainera feminista izan. Dena den, beraien lagun handia naiz, oso ondo ulertzen ditut.
- Nor edo nor eskandalizatzen duzula uste duzu?
- Bai
- Eta hori al da zure helburua?
- Ez, ez; ez nihoa horren bila, norbait nik egiten dudanarekin eskandalizatzen bada, pena ematen dit. Gainera ni ere eskandaliza naiteke postura hori hartzen dutelako.
- Zer lortu nahi duzu “Noche de Cabaret” honekin?
- Kabareta alde guztietara eramatea da nire helburua, baina hau bezalako antzoki zabaletan hotz samar gertatzen da, dantzaleku eta antzokoetarako aproposagoa da.
- Hamaikak gertu dira eta La Otxoa hurrengo emanaldirako prestatzen hasi da.

Arantzazu: Gerra osteko euskal abangoardiaren lehen harria

Arantzazuko monastegiko lehen harria ezartzearekin bat, orain ia 40 urte dela, Euskal abangoardia artistikoaren jaiotzarako lehen urratsa eman zen.

“Arantzazuko taldeaz” ari gara, Euskal artearen arloko pertsonaia aipagarriak bildu zituenaz, hala nola Sainz de Oiza, Oteiza, Basterretxea, Ibarrola edo Txillida.

Arlo estetiko, erlijioso edo politikoarekin hain bateratua zetorren egitasmo haren inguruan horrenbeste artista elkartzeak, une hura, erabat Euskalduna zen aban-

goardia artistiko baten jaiotzarekin erlazionatzera eraman du kritiko bat baino gehiago.

Berau gerra osteko Estatu abangoardietariko birekin bat zetorren garai hartan, hots, “Dau al Set” katalanarekin eta “El Paso” madrildarrarekin. Bere intencioek, ordea, artistikoaren hesia gainditzeko zuten, hau da, kutsu sozial eta politikoa edukiko zuen abangoardia artistiko bat sortzea.

Baina helburu hauek trabak besterik ez zituzten aurkitu garai hartan, eta ez bakarrik Erromako “comisión del arte sacro” zelakoa-

ren aldetik, oso begi txarrez ikusten bait zituen “euskaldun zoro” haien berrikuntza ikonografikoak.

Baita Madrileko gobernuarekin ere izan zuten arazorik, taldeko kideetarikoz batzuek Alderdi komunistan militatzen zutelako eta. Halere, egitasmoak aurrera jo zuen eta, gaur egun, lan bizi, moderno, aurrerakoa dugu oraindik, bere formek atzean duten erliebeagatik batez ere.

Mikel Arregi

Goi mailako Joierizia

18 kilateko legezko urrea

NAROKI

NEREA

HAURRENTZAKO JAZKIAK - LENTZERIA FINA - KORTSETRIA

Erdiko kale, 28 - Tnoa: 791343 - ARRASATE (Gipuzkoa)

**K
I
L
L
I
K
O
L
O**

Gaurko gazteen
jantzidenda

Ferrerias 21 - 797006

Aurkezpen gisa, musika-
ren sail honen ardatz
edo ideia nagusien zi-
rriborro bat aurreratu nahi di-
zuegu, bideari hasiera emateko.

Lehenik, musikaz arituko gara
hemen, hitzaren zentzurik zabale-
nean. Musikaren arabera be-
reizten diren tribu guztiek -rocker,
poppy, heavy, klasiko, punky
etab. arrek- izango dute beren le-
kua. Eta elkarkide izan daitezen
nahi genuke, setakeriarik gabe.
Pinturan edo literaturan bezalaxe,
musikan ere estilo bat bereziki
maitatzeak ez luke besteekiko me-
sprezua ekarri behar. Azken fi-
nean, eta jarrera zabalez en-
tztzunez gero, estilo oso ezberdi-
netan aurki dezakegun lan mu-
sikal ugari..

Esan dezagun, baita ere, hau ez
dela aldizkari espezializatu bat,
azken-azken orduko berri guztiak
eta horiek bakarrik ematera behar-
tuta dagoena. Gaurkotasunak
eragingo du gure lana askotan,
baina beste zenbaitetan mu-
sikaren une edo pertsonaia histori-
koak ere aurkeztuko ditugu, orai-
na eta geroa ulertzeko lagungarri
izango direlakoan.

Zer esanik ez, euskal musika,
hau da euskaraz egiten den musika
izango da gure begietako kuttuna.
Aldizkari honen testuinguruan
bidezko izateaz aparte, gure ar-
tean ez dela behar adina aipatzen
eta ezagutzen uste dugulako.

Denetatik sartuko dugu, beraz,
zakuan. Zuzeneko emanaldien ai-

pamenak edo diska bereizgarrien
aurkezpenak, musika estilo ezber-
dinei edota punta-puntako izen
propioei eskainitako fitxa modu-
ko laburbidumak. Aldizkari musi-
kaletatik aukeratutako materiala
ere izango dugu. Eta, noski, gaur-
kotasunak agintzen dituen gaiak,
sortu ahala. Ha! eta Arrasaten
gehien saldutako disken zerrenda
ere bai, hilean behin.

Asmo hauekin abiatzen gara.
Bideak berak eta bideko kideek
—zuek— eragingo duzue gainon-
tzekoa.

Mikel Irizar

ENTZUN GAITUZUE? BA, ARI GARA!



MUSIKA TRESNAK - Tnoa: 792909

hire azkeneko tragoa
OTAMENDIn

Legarreko pabiloia

eya

T.B., Bideoa, Hi-Fi ekipoak,
eta Amstrad ordenadoreak

Ikus ezazu Grundig aparatu-
tuen aukera guztia

Aukera haundia lanpara,
aplike, karril, foko, mehai-
gaineko lanpara etab. etab.

Iturriotz kalea
Tnoa:790384

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. Zangitu

Tnoa: 799182
Tnoa: 799182

ARRASATE
BERGARA

ERREZETA

Gaztaina-sasoia udazkenarekin batera samar iritsi zitzaigun. Fruitu goxo hau denbora batean euskaldunen oinarriko elikagai izan zen; gaur egun, osteria, litxarrerria moduan jaten dugu, batez ere.

Asko dira berau prestatzeko erak, baina arrakastatsuenak, ia dudarik gabe, erreta jatea izango da. Ikustea besterik ez zegoen zelako ilarak egoten ziren aurreko urteetan Portaloian!

Gaurko etxeetan erreta jateko zartagina zaharren bat erabili behar, baina landetxe, baserri eta zenbait elkartetan bada beste modurik gaztaina erre goxo askoak jateko.

Nola? Oraintxe azalduko dizuegu, bada.


Hartu bidoi bat, eta erditik baino goragotik ebaki. Honi burdinazko hankak atxeki eta inguru guztian zuloak egin. Berau izango da egurra erretakoan txingarren gordeleku. Gero goi partean ebaki zabal pare bat egin danbolinaren ardatza jartzeko. Berotasuna ondo gorde nahi bada estalkia behar. Soberako bidoi pusketarekin egin ahal da.

ZIZKA-MIZKAK

AEDk antolatutako sukaldaritza ikastaroa aurrera doa honez gero. Joan zen hilaren 20an eman zitzaion hasiera Bixi Aperribairen eskutik, eta ostegunero errezeta goxo-goxoak ikasteko aukera aparta da. Eman ditu horrez gainera, zenbait "truko" sukaldean zenbaitetan behar-beharrezko gertatzen direnak. Hona hemen pare bat:

Kortatutako natilarekin zer egin:

Samurra du konponbidea. Hoztu samartuta dagoenean, sartu pote batean, eta gora eta beheara eragin, ahal denik eta indar guztiarekin. Hori besterik ez. ■



SAN MIGUEL S.L.

KÖMMERLING

P.V.C.zko LEIHOGINTZA



Ezagutu itzazu P.V.C.ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...

Gral. Garro 2 eta Uribarri Etorbidea 20.

Tnoak: (943) 79 24 12 - 79 99 58

20500 ARRASATE (Gipuzkoa)



1-LANPOSTUEN ESKEINTZA

Ondoko lanpostuak betetzeko, hautatze-frogetarako dei egiten da:

- 3 Administrari-laguntzaile
- Atezain bat
- Itzultzaile bat
- Kultura eta Hezkuntza Arloetako teknikari bat

Deialdi hau arautzen duten oinarriak Udaletxeko harrera-lekuan jaso ahal dira.

Eskaerak aurkezteko epea Abenduak 20an, arratsaldeko 6,30etan amaituko da.

2-ASEGURU-POLIZAK KONTRATATZE-KO LEHIAKETA

Lehiaketa-deia egiten da ondoko aseguru-polizak kontratatzeko:

- Kalte materialetako aseguria (suteak)
- Erantzunkizun Zibileko aseguria
- Pertsonalaren istripuetarako aseguria
- Ibilgailu-asegurua

Baldintza pleguak Udaletxeko Idazkaritzan egongo dira interesatuen esku.

Eskeintzak astertzeko epea Abenduak 31an, arratsaldeko 6,30etan amaituko da.

3-UDAL LORATEGIEN MANTENU-ZER-BITZUAK KONTRATATZEKO LEHIAKETA

Arrasateko Udalak, goian esandako zerbitzuak kontratatzeko lehiaketa-deia egiten du.

Baldintza-pleguak Udaletxeko Idazkaritzan egongo dira agerian intere satuen esku.

Eskeintzak aurkezteko epea Abenduak 31an, arratsaldeko 6,30etan amaituko da

Hipoteka ordaindu ondoren, Makatzenako kiroldegia Udalaren eskutara pasako da

Hiru miloi t'erdi pezetatuko hipoteka Gipuzkoako Kutxari ordaindu ondoren, Makatzenako Kiroldegia Udalaren eskutara pasatuko da. Gai hau ostiralean, Abenduak 2, egingo den plenoan aztertuko da.

Kiroldegi honen instalazioak oso hondatuta daudenez, orain inbertsio batzuen beharra dago. Orain, estalitako frontoi bat eta aspalditik erabiltzen ez den igerilekua ditu. Berriketa hauek megin ondoren, frontoiaz gain, bi atletismo pista (estali ondoren, piszina dagoen tokian egongo lirake), aldagelak eta dutexak izango lituzke.

Orain galdera bat gelditzen da aurrean: berriketa hauek burutzen badi-

ra Makatzenako Kiroldegitik metro gutxitara dagoen Obenerrekako frontoia estaltzea komenigarria ote litzateke? Esan behar da, aurtengo aurrekontuetan badagoela diru kopuru bat proiektu honetarako.

Igeri egiteko izenemateak

"Arrasateko Igeriketa Taldea"n aurtengo kanpainarako izenemate epea bukatzeaz dago. Oraindik, ondorengo talde hauetan eta honako kirol hauek praktikatzeko eman daitezke izena: igeriketa klasikako lehen mailan (5 urtetatik 8urtetarako umeak); aletaz eginiko igeriketako lehen mailan (5 urtetatik 11urtetarako); eta helduentzako gimnasia. Bestalde, waterpolo talde bat prestatzen ari da.

Interesatuak Zuzendaritza Batzorde edo entrenatzaileengana jo-

dezakete arratsaldez Musakolako Kiroldegian.

"Arrasate Kirolak" Atletismo Taldeak marka apalekin hasi denboraldia

"Arrasate Kirolak" Atletismo Taldeak pasa den astebukaeran hasi zuen aurtengo denboraldia Anoetan.

Han lortutako markak oso apalak izan ziren.

Lorenzo Avila eta Miguel Sanchez 60 metrotako proban lortutakoak aipatu behar dira. Lehenak, 7,1 segundu eta bigarrenak, 7,2 segundutako markekin Gipuzkoako Txapelketa absoluturako pasea lortu zuten.

Arrasatearren partaidetza honako disziplinetara era iritsi zen: 60 metroko hesi-lasterketa; Salto triplea (edo jauzi hirukoitza); 800 metrotako lasterketa; pisu-jaurtiketa eta 5 kilometrotako martxa.

Talde honen entrenatzailea Fernando Zufiria dugu.

Kirol Helkarateentzako oharra

Ostiraleko kaleratuko den asteak honen orrialdetan zuen ekintzen berri izateko, aurretiaz guri albiste edo oharra eskatzen dizuegu. Bai Zeharkale Estalia, 1-1. Bn (Sokoa taberna gainean dago kokatuta) daugun egoitzara bidaliz, bai 79 71 64 telefonora deituz jar zaitezke gurekin harremanetan.

Squash

Eratu berria den AKE Elkartek, Abenduaren 2an, arratsaldeko 6,30etan Txalaparta Elkartearen (Amaya zineantzekiaren ondoan dago kokatuta), bilera bat egingo du.

Batzar honetan squashi buruzko gaiak aztertuko dira: kirol honen bultzapena txakelta ofizialetan, Arrasaten zein bailarako herrietan.

Zoraz eskiatzera lagunik onenarekin!

OINARRIZKO EKIPOA
ROSSIGNOL E-470 eskiak
SALOMON 447 hankalekuak
TECNO-pro STAR bastoia

19.900.-

INTER SPORT **LORAMENDI** **LK**

KIROLAK

Ohe gainean etzanda

Mulon tipo alai da, bizi-bizia, gauzak ongi egiten dituen horietakoa. Irribarre zoragarriak marrazten ditu bere ezpaineekin.

Bai. Mulonek badaki gau eta egunak nola dastatu.

Badaki bizitza zoragarria dela.

Diner, Mulonen anaia, tipo lasaia da, tris-tea, iluna.

Elkarrekin ikusita inork ez luke asmatuko anaiak direnik.

Abel eta Caín. Caín eta Abel.

Aspalditxo honetan Mulon Matixarekin ibiltzen da. Gizon eta emakumeen etengabe-ko jolasa. Ezagutu zirenetik maitasunaren sareetan murgilduak biak.

Dinerrek ez du inoiz neska batekin larrua jo.

Ez du oraindik amodioaren paradisia zualatu.

Matixa Mulonen zain dago kaleko edozein

ostatutan, kafesne beroa aurrean duela. Laurak, lau t'erdiak. Aspertuta, beraren bila joa-tea erabaki du Mulonen etxera.

Ta, tari, tariro.

Ziur aski, ez daki mutil-laguna kanpoan dela.

Etxean Diner aurkitu du, bakarrik. Sartu eta elkarhizketari ekin diote. Hau eta bestea, hemendik eta handik.

Etorkizun orlegi baten iragan beltza.

—Begi politikak dituzu, Diner. Asko gustatzen zaizkit.

Inkonszienteki, geroz eta hurbilago sentitu dira.

Eguneko betebeharrak amaitu eta gero, Mulonek etxeko bideari ekin dio. Pausu azkar-rrak, Matixa ikusteko gogo bizian.

Ta, tari, tariro.

Etxera heldu. Atea ireki.

Logelarantz abiatu da.

Ohe gainean, ohe gainean...

Ohe gainean etzanda Diner eta Matixa aurkitu ditu, biak bilutsik.

Ta, tari, tariro.

Jon Andueza

Elhuyar taldekoen kolaborazioa

Propina soldata denean

Joxerra Aizpurua

Lagunen arteko hitzaspertuetan gai ugari tratatzen dira. Horietako bat propinarena da. Eritzi desberdinak egon badaitezke ere, gehiengoa bat etorriko da norbaiti propina ustez gerotan norberak nahi duena utz dezakeela esatean, hau da, gure iharduera ekonomikoan pisu espezifiko txikia izan behar duela esatean.

Idazten duen honek New York alde-rantz abiatu zenean entzuna zeukan in-guru haietan propinak beste filosofia bat zeukala. Ederki azkar ikasi genuen "The double of taxes" (Tax-aren bikoitza) gutxi gorabehera utzi behar zela taberna,

taxi, etab.etan. Bertako lagunei propina-ren filosofiaz galdetu genienean gizarte hartan propinak duen garrantziaz jabe-tzen hasi ginen. Milaka pertsonen solda-taren oinarria propina da eta beraz, hango iharduera ekonomikoan pisu es-pezfikoa handia du. Hango jendearen-tzat normala da propina uztea eta norbai-tek uzten ez badu markatuta geratzeko arriskua dauka; eta ez hori bakarrik, pro-pinarik uzten ez baduzu pertsona batzuk bere soldataren zati bat gabe uzten ditu-zu.

Sorgin-gurpil honek, gezurra badiru-di ere, ekonomi eragile bezala funtzio-natzen du eta negozio berriak ireketzeko sustatzaile da.

Bakoitzak bere ondorioak atera di-tzake baina sinetsi ezazue oso letxe tx-a-rraan jartzen gonela propina utzi behar genuenean.

ARRASATE PRESS

Bidalitzazue hona zeuok argitara-tu nahi dituzuen istorioak edota zabalduko zenituzketen berri edo ohar interesgarriak.

Gure helbidea: Zeharkale estalia

1, 1. b.

Telefona 797164

ETB programazioa

IGANDEA, ABENDUAK 4

- 10.50 AURKEZPENA
10.52 EGI BIDEAN
11.00 MEZA SANTUA
Lazkaoko Benediktinarren elizatik meza saildua.
11.55 ZIKLO-KROSA
Aretxabaletatik zuzenean
13.25 BAI HORIXE
14.00 GAUR EGUN, albistegia
14.05 ABESBATZAK
15.05 HARRIKETARRAK, marrazki bizidunak 10. kapituloa
15.30 BAZKAL OSTEKO ZIENA: "NIGHT PATROL" (1985)
Zuzendaria: Jackie KONG
Antzezleak: Linda Blair, Pat Paulsen, Jaye P. Morgan
Melvin-ek, polizia sartu berria eta ez trebeegia, komiko-
ordezko bezala egiten du, lan extra moduan. Bere polizia-
karrera eta bere izena goraldtu nahiean, "komiko ezezagun"
izengoitipean, kasurik aldrebesenak argitzera abiatzen da.
17.30 TARZAN, telesaila 78. kapituloa
18.15 ONGITIRABILIBIRA, haurrentzako daioa
19.15 XANFARIN ETA ANDERE KING, telesaila 63. kap.
21.35 LOBSTER KOMEDIAK, Zine Komikoa
21.50 KIROLEZ KIROL
23.20 AMAIERA

ASTELEHENA, ABENDUAK 5

- 13.28 AURKEZPENA
13.30 KIROLEZ KIROL
14.00 AUR EGUN, albistegia
14.15 HARAN HANDIA
15.05 II. TXANDA: HARREMAN SAKONA, telesaila
16.00 AMAIERA
18.08 AURKEZPENA
18.10 POLI, Haurrentzako, saioa
18.20 BARMAN-EN ABENTURAK, Marrazki bizidunak
MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak
CHARNIE BROWN, Marrazki bizidunak
19.10 GALDE DEBALDE
19.40 AGNUN, telesaila
20.30 GAUR EGUN, Albistegia
20.45 DALLAS, Telesaila
21.35 EZBAIAN, Eztabaidaraka saioa
22.45 GAUR EGUN, Albistegia
22.50 AZKEN TXANPA, korol saioa
23.00 AMAIERA

ASTEARTEA, ABENDUAK 6

- 11.58 AURKEZPENA
12.00 MOTOR SHOW, Hondarrabiatik zuzenean.
13.35 GALDE DEBALDE, haurrentzako saioa
14.00 GAUR EGUN, Albistegia
14.15 HARAN HANDIA, telesaila
15.05 II. TXANDA
16.15 AMIERA
17.58 AURKEZPENA
18.00 POLI, Marrazki bizidunak
18.10 JETSONDARRAK, Marrazki bizidunak
MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak
FLANNERY ETA BERE ASTAKILOAK, Marrazki
bizidunak

- 19.05 TXIMELETA UHARTEA, Telesaila
19.30 PAUSOKA, Haurrentzako saioa
20.30 GAUR EGUN, Albistegia
20.45 ABAKEGILEA, Telesaila
21.35 KATU KALE, Musika saioa
22.45 GAUR EGUN, Albistegia
22.50 AZKEN TXANPA, Kirol saioa
23.00 EGI BIDEAN
23.10 AMAIERA

ASTEAZKENA, ABENDUAK 7

- 13.35 AURKEZPENA
13.36 ONGITIRABILIBIRA, Haurrentzako saioa
14.00 GAUR EGUN, Albistegia
14.20 HARAN HANDIA, Telesaila
15.10 II. TXANDA: ABESBATZAK
16.15 AMAIERA
18.03 AURKEZPEANA
18.05 POLI, Haurrentzako saioa
18.15 IPUIN SAIOA, Marrazki bizidunak
MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki bizidunak
DONKEY KONG, Marrazki bizidunak
19.000 TELETXIP
19.35 OBIN HOOD, telesaila
20.30 AUR EGUN, Albistegia
21.00 ZINE PANTAILA: "ARRAKASTA DA MENDEKU-
RIK HOBERENA"
Zuzendaria: Jerzy SKOLIMOWSKI
Antzezleak: Michael YORK, Joanna SZERBIC, Michael
LYNDON
Intrigaz beteriko pelikula honetan, London-eko herbeste-
ratzean bilzi den
Poloniako zuzendari bat eta bere seme bihurria azaltzen
dira: azken hau famili-sustraietan arakatzean oso interesa-
turik.
22.30 HEMEN ETA MUNDUAN,
Herriarte eta Euskadiko informazioari buruzko saioa
23.10 GAUR EGUN, Albistegia
23.25 AZKEN TXANPA, Kirol saioa
23.40 AMAIERA

OSTEGUNA, ABENDUAK 8

- 13.35 AURKEZPENA
13.36 TELETXIP, Haurrentzako saioa
14.00 GAUR EGUN, Albistegia
14.20 HARAN HANDIA, Telesaila
15.10 II. TXANDA: HEMEN ETA MUNDUAN
15.50 AMAIERA
18.13 AURKEZPENA
18.15 POLI
18.25 BANAN BANAN, Haurrentzako saioa
MUNDUARI BIRA 80 EGUNETAN, Marrazki
bizidunak
KAIXO SANDIBEL, Marrazki bizidunak
19.15 GILEN TELL, Telesaila
19.40 DENA ETA EZER EZ, Telesaila
20.30 GAUR EGUN, Albistegia
21.00 LAINO GUZTIEN AZPITIK
22.00 EHUNDEGITIK AGINTERA, Telesaila
23.00 GAUR EGUN, Albistegia
23.15 AZKEN TXANPA, kirol saioa
23.30 AMAIERA


RUPER ORDORIKA ARRASATEN

ARRASATE PRESS astekariak, Udalaren laguntzaz gaur egungo kantaririk puntakoenaren kontzertua aurkezten dizu:

Non: Arrasateko Amaya antzokian.

Noiz: Abenduaren 10ean, larunbata, gaueko 10,30etan.

Zer: Ruper Ordorikaren kontzertua.



Ruper Ordorika kantari disdiratsua, **Mugalaris** talde bikainarekin elkarlanean ikusteko aukera paregabea duzu.

Sarrerak, 300 pezetatan, honako lekuetan eros daitezke:

ARRASATE: Udalaitz, Monte eta Eresi-n.

ARETXABALETA: Arlutz-en.

BERGARA: Pol-pol-en.

OÑATI: Guria eta Pott-en.

TAKILAKO PREZIOA: 400 pezeta.

ANTOLATZAILEA: **ARRASATE PRESS**

Arrasten ez gara ezkontza zale. 1988. urtean 164 pertsona ezkondu zen. Euskal herriko proportzioaren arabera 82 gehiagok ezkondu behar zuten

Arrasateko 26.376 biztanleetatik, 18.329 (%69,5) Euskadiko komunitate autonomoan jaiotakoak dira. Beste 1852etatik batzuk Nafarroan jaiotakoak dira eta gainontzekoak Estatu Espainolean. Atzerrian jaiotakoak ez dira estatistiketan sartzen, ejem.

Arrasate herri industrialaren denik ezin uka. Lehen sektorean (nekazaritza) 54 pertsonak egiten du lan. Honek %0,6a suposatzen du, Euskadiko komunitate autonomoan % 3,8a eta Espainian %16a den bitartean. Industrian %64,6 ari da, Euskadiko K.A.an %41,3 eta Espainian %24,2. Azkenik zer-

bitzu mailan 2.723 pertsonak dihardu, hau da %31,5, Euskadiko K.A.an 48,9a eta Espainian %52,4 den bitartean. Zifra hauek kontutan hartuta ulergarria da Udaltxeak azken plenoan agertu zuen ardura.

Hona hemen ariketa bat. Arrasaten 7.145 turismo, 434 kamioi eta lau autobus daudela esaten dute estatistikek. Aparkalekuak berriz 20250 lurrazpikoak eta 3.326 gainean. Zenbat aparkaleku falta dira ibilgailu guztientzat lekua egon dadin? Non aparkatzen dute aparkalekurik gabe gelditzen direnak?

649 milioi pesetako kopurua da Udalaren eraikuntzen balioa, aseguratutako jarri dituen baloreak ontzat hartzen badira behintzat. Eraikuntzarik garestiena

Udaltxeaz aparte Monterroi jauregia da, Monterroi jauregia da, 88.200.000 pesetakoa, hain zuzen.

Arrasateko azienda osoa 1982. urtean 538 burutakoa zen honela banaturik 313 behi, 119 ardi, 10 ahuntz, 70 txerri eta 23 zaldi.

Ez dakizula zenbat lorategi edo berdegune duen Arrasateko Udalak zaindu beharra. Hona hemen:

—Erdigunea:	39.566 m ²
—Garagartza:	27.100 m ²
—Musakola:	19.350 m ²
—Makatzena:	18.090 m ²
—Erguin:	14.261 m ²
—San Andres:	11.047 m ²
—GUZTIRA:	129.414 m ²

Asko ala gutxi da? Batzbesteko 5 m² pertsonako.



HERRI IRRATIA

DONOSTIA-LOIOLA

GEURE HERRIAREN OIHARTZUNA